




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Misto (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

| | |
|------------------------|---|
| SARRERA-ENTRADA |  GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA |
| | 2006 URT. 30 ENE. 30 |
| | Zk. / N.º 1216 |
| Esp. Exp. 07/0/05/1212 | |

MAHAIARI

REBEKA UBERA ARANZETAk, ARALAR Taldeko Batzarkide denak, organo horren aurrean ondorengo **AZALTZEN DU** :

Idatzi honen bidez eta Batzar Nagusien Jarduerarako Araudiaren arabera, **IDATZIZ ERANTZUN BEHARREKO GALDERA** hauek egiten dizkiola Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Foru Diputatuari :

Gure Taldeak eginiko galdera bati erantzunez, 2004ko uztailaren 12an adierazi zitzaigun Pasaiako Itsas Etxea Gizarte Politiketarako Departamenduari atxikita egon arren, eraikinaren parte baten kudeaketaz Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamendua arduratuko zela, hain zuzen ere, gizarte bazterketaren arriskuan dauden kolektiboen egonaldi labur eta ertainetarako.

Urte t'erdi pasa denez honako hau jakin nahi dugu:

- 1.- Ea zentro hori martxan dagoen ala ez. Martxan ez badago, zergatik ari den atzeratzen. Hala eta guztiz ere, zentro horrek izango dituen ezaugarriak, zenbat jenderentzat dagoen aurreikusita. Zenbatekoa den zentroa martxan jartzeko aurreikusten den diru kopurua. Noizko egongo den irekita.
- 2.- Martxan badago, noiz ireki den, zeintzuk diren zentroaren ezaugarriak, zenbat jenderentzat dago pentsatuta, ea plaza guztiak beteta dauden ala ez.

ZIOA

Talde honen jarduera politikorako guztiz beharrezkoa da informazio hori eskuratzea Foru Aldundiaren Gobernuak daraman politika baloratu ahal izateko.

Donostia, 2006ko urtarrilak 30


Rebeka Ubera Aranzeta
ARALAR Batzarkide Taldea